

# FACEBOOK-ORRIAK

## Datu pertsonalak babesteko konpromisoa

### 1. Sarrera

MAX CENTER SALTOKI-GUNEKO JABEEN ERKIDEGOA ETA MAX CENTER AISIARAKO GUNEKO JABEEN ERKIDEGOA, egoitza soziala: Barrio Kareaga s/n, 48903 Barakaldo, Bizkaia; IFZ: H-48.800.932 eta H-95.211.967 (aurrerantzean "gu" edo "gurea") Facebook sare sozialaren atal den orri honen administratzailea da. Facebook-orri honen bidez gure jarduerak jakinarazten dizkizugu eta gurekin komunikatzeko bidea eskaintzen dizugu.

### 2. Erantzukizun-mugaketa

Zure datuak jaso, gorde eta erabiltzen ditugu soilik datu pertsonalak babesteko konpromiso honen eta aplikagarri diren datu pertsonalak babesteko arautegien edukien arabera, bereziki, EBaren datuak babesteko erregelamendu orokorraren (DBEO, edo GDPR, ingeleseko siglen arabera), halaber datuak babesteko erregimen juridiko nazionala. Datu pertsonalak babesteko gure konpromisoaren barne, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak zenbateraino erabiltzen ditugun eta erabilerari horren helburua zein den, orri honen erabilerari dagokionez. Zure datu pertsonalen egiten dugun tratamenduari buruzko informazio gehiago nahi baduzu gure web-orriaren datu pertsonalak babesteko konpromisoa ikus dezakezu [hemen](#).

Orri hau Facebook-en eskaintzaren barne dago, beraz gogoratu behar dizugu, aldi berean, Facebook-ek ere datu pertsonalen tratamendua egiten duela. Guk ezin dugu esku hartu Facebook-ek egiten duen datu pertsonalen tratamenduan; bereziki, Facebook ez da gure tratamenduaren arduraduna gure erantzukizunpean. Facebook-ek eskaintzen dituen aukeren barne, zure datu pertsonalen babesa ziurtatzen saiatzen gara. Facebook-ek egiten duen datuen tratamenduari dagokionez, Facebook-en gidalerroak erabiltzen dira —behinik Facebook-en arabera— eta hemen daude eskuragarri <https://es-es.facebook.com/privacy/explanation>.

Datuak babesteko araudiak ezartzen dituen baldintzei jarraiki, Facebook-ek eta guk baterako erantzukizuna onartzen dugu gure Facebook-orriaren funtzionamendurako edo erabiltzeek gure Facebook-orria ikustatzen dutenean egindako datuen baloraziorako. Facebook-ek tratamenduaren erantzunkideen arteko akordioaren zehaztapenak eta baldintzak ezarri zituen, zeinak orri baten administratzaileak onartu behar dituen eta erantzukizunaren mugaketa zehazten duten.

### 3. Facebook-orriaren ikusgaitasuna

Facebook-ek orrien administratzaileei aukera eskaintzen die bere orriaren erabileraren eta erabiltzeen ikuste orokorra izateko orriaren ikustaldi-funtzioaren bidez. Batez ere, datu estatistikoak atzitu eta ebaluatu daitezke orriaren ikustaldiaren bidez.

Orriak ikustea ahalbidetzen dituen datuak erabiltzen ditugu orria izan ahal erakargarrien eta eraginkorren izan dadin. Horretarako, Facebook-ek berak sortutako datuak eskaintzen dizkigu. Orriaren ikustaldi-funtzioaren funtzionaltasunari eta erantzukizunari buruzko informazio gehiago ikusteko,  ikusi  Facebook  hemen: [https://www.facebook.com/legal/terms/page\\_controller\\_addendum](https://www.facebook.com/legal/terms/page_controller_addendum).

#### 4. Messenger

Facebook-ek bere erabiltzaile erregistratuei berehalako komunikazioa eskaintzen die: Facebook Messenger. Gurekin harremanetan jartzen bazara Facebook Messenger-en bidez, helarazitako datuak zure eskariari erantzuteko soilik gordeko eta erabiliko ditugu. Zure datuak erabiltzeko oinarri juridikoa zuk emandako adostasuna da DBOAren 6. artikulua, 1. paragrafoa, a) letraren arabera, halaber gure interes legitimoa DBOAren 6. artikulua, 1. paragrafoa, f) letraren ildoan. Gure interes legitimoa honetan datza: bezeroen kontsulten bilketa eta tratamendua, ebaluazioa eta izan litekeen gehiegizko erabileraren kontrola.

Billetaren helburua lortzeko beharrezkoak ez direnean datuak ezereztuko dira. Zure datu pertsonalen kasuan, elkarrizketa amaitzean izango da. Guri dagokigunez, elkarrizketa amaitzen da egoeratik ondorioztatu daitekeenean gertaerak erabat argi gelditu direla. Erabiltzaileak bere datu pertsonalak erabiltzeko adostasuna ezeztatu dezake edozein unetan; kasu horretan datuak berehala ezabatuko dira geroago gordetzeko arrazoirik ez badago.

#### 5. Informazio gehigarria

Galderarik baduzu guk datu pertsonalen egiten dugun erabilerari buruz gure Facebook-orriari dagokionez, jarri gurekin harremanetan. Harremanetarako datuak eta komunikazio kanalak gure datu pertsonalak babesteko konpromisoan zehazten dira. Facebook-en datuen babesari buruzko galderarik baduzu, jarri Facebook-ekin harremanetan zuzenean, mesedez.

Zure datu pertsonalen tratamenduari dagokionez hainbat eskubide duzu. Lehenik, informaziorako eskubide orokorra duzu eta, beharrezkoa balitz, zure datu pertsonalen zuzenketa edota ezereztea edo blokeoa eska dezakezu. Halaber, tratamenduaren mugaketa eska dezakezu, eta aurka egiteko eta erreklamatzeko eskubideak erabil ditzakezu kontrol-agintaritzaren baten aurrean. Orobat, ematen dizkiguzun datu pertsonalak transferitzeko eskubidea duzu. Gure datuen tratamenduarekiko zure eskubideak erabili nahi badituzu edota hori buruzko informazio gehiago eskatu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan. Zure eskubideei buruzko informazio gehiago aurki dezakezu ere gure web-orrian eskuragarri dagoen datu pertsonalak babesteko konpromisoan; [hemen](#) irakurri dezakezu.

#### 6. Datu pertsonalen komunikazioa

Beharrezkoa denean, ahaldunduta gaude zure datu pertsonalak guri zerbitzuak ematen dizkiguten erakundeetara emateko.

Kasu horietan, kontratu bidez inposatzen dugu jasotzaile horiek zure datu pertsonalak babesteko ziurtasun-neurriak ezar ditzaten.

Zure datu pertsonalak jakinarazi diezaikegun jasotzaile mailen artean hurrengo erakundeak daude:

- i. PSERVERS CONSULTING, LDA.
- ii. LOG.OSCON, Lda.
- iii. Sierra Spain Shopping Centers Services, S.A.U.
- iv. STYLELOVELY WEB, S.L.

Eta hurrengo zerbitzuak hornitu ditzaketan besteak:

